

EUSKAL ENPRESAK TXINARA BIDAIATUKO DUTE LEHENDIK DITUZTEN MERKATARITZA HARREMANAK SENDOTZEKO

Donostia - 2015eko irailaren 11a - Txinara joateko misio komertziala Gipuzkoako Bazkondeak antolatzen du, Arabako eta Bilboko Ganberekin batera eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomia Garapen eta Lehiakortasun Sailaren laguntzarekin.

Misio irailaren 14a eta 18 bitartean egingo da eta 11 enpresek parte hartuko dute, 6 gipuzkoar, 3 bizkaitar eta 2 arabar. Misio komertziala osatzen duten hamaika euskal enpresak Txinara habiatuko dira lehendik dituzten merkataritza harremanak sendotzeko eta Txinak egun bizi duen egoera bertatik bertara ezagutzeko helburuarekin.

Txina

Txina munduko bigarren ekonomia da EEBBen atzetik eta une honetan bizi duen egoera aldrebesatuaz eta tensio finantzieroez gain Asiako %69ko BEZa izaten jarraitzen du, Japonia kontutan hartu gabe. Hazkunde erritmoa ere altua izaten jarraitzen du, 2015erako %6ko igora izango duela espero da, oso kopuru altua mendebaldeko ekonomiekin alderatuz, baina era berean azken urtetan izan duen bataz bestekotik oso hurrun geratzen dela ikusten da (azken hamarkadan urteko %10a).

Nabarmetzeko da bestalde, Txinan hirietara loturik dagoen erdi mailako klase bat hazten ari dela europakoak duen erosteko ahalmenarekin parekatu daitekeena, eta hau da hain zuzen egungo finantziario tentsioak gehien pairatzen ari dena oztopoak jarriz kanpoko enpresen sarrerari, hazten ari den eskaera horri erantzuteko produktuak eta zerbitzuak ekar dezaketenei, hain zuzen. Dena den, Gipuzkoako enpresak industria ekipamenduko esportazioengatik egin dute apustu, inbertsioarekin erlazio handia duen arloa eta 2015 arte egoerari ondo eutsi diona. Euskadi mailan berriz, urteko lehenengo hilabeteetan, esportazioetan moteltze nabarmen bat somatu da arabako automozio sektoreko salmentak desagertzearekin batera.

Kontutan hartu beharreko beste datua joan den urteko emaitzak dira, 2014a oso urte ona izan baitzen Txinara egindako esportazioei dagokionez, eta 2015eko lehen urte honetan gertatzen ari denaren arabera aurreikusi daiteke urte amaierarako esportazioak 2013 eta 2014ko kopurueta iritsi daitezkeela.

Esportazioak			
2015 maitza arte		2014 maitza arte	
Probintzia	balioa (mila eurotan)	Probintzia	balioa (mila eurotan)
ARABA	38.517,88	ARABA	92.522,95
GIPUZKOA	85.904,78	GIPUZKOA	142.958,52
BIZKAIA	56.477,38	BIZKAIA	30.907,84
	108.900,04		266.389,32



Esportazioak eta inportazioak 2014ean:

(mila eurotan)	ESPORTAZIOAK TXINARA	TXINAKO INPORTAZIOAK
Gipuzkoa	347.086	287.030
Euskadi	635.745	937.150
Espainia	4.080.252	19.766.041

Esportazioak. Txinara egindako esportazioen garapena (mira eurotan):

	2012	2013	2014
Gipuzkoa	245.528	267.081	347.086
Euskadi	419.223	495.932	635.745

Informazio gehiago nahi izanez gero:

Irune Bengoetxea

ibengoetxea@camaragipuzkoa.com

943 000 310 / 688884347